

**2015EKO URTARRILAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Leire Artola Ugalde
- Eva Diaz del Rio
- Encarna Arrieta Telleria
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

Alkate jaunak (BILDU): "Lehendabizi komentatu gai-zerrendan ez dagoen puntu bat tratatu nahi dugula, hain zuzen ere, astelehen arratsaldean gizarte-ongizatzeko batzordean tratatu zena. Sartzearen premia ikusten da gai-

zerrenda bidali eta gero egin zelako batzordea eta horren ondorioz, ezinezkoa izan zen sartzeara. Gizarte-ongizate batzordeak berak proposatu du premiazko puntua modura sartzeara. Gaia "Medicos sin Fronteras"eko Larrialdi-Fondora dirulaguntza bideratzea da.

Gai-zerrendan premiazko puntu modura sartzeko erabakia hartzea, Pleno honi dagokio eta hori da, hain zuzen ere, orain bozkatuko duguna.

Bozketa eginda, aho batez onartu, gaia premiazko modura tratatzea, eskaera eta galderen atala baino lehen.

1.- AURREKO AKTA. 2014ko abenduaren 18ko aktaren onespena.

2014ko abenduaren 18ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ORMAK, S.A.rekin SINATUTAKO HITZARMENAREN ALDAKETA

Ezagutzera eman da, 2015eko urtarrilaren 26ko hirigintza batzordearen proposamena, hau da:

"Lehenik. 2011-07-27an ORAMK, S.L.U.rekin sinatutako Hitzarmenaren aldatetari, jarraian adierazten terminoetan, hasierako onespena ematea,:

"4.1 UNIDADE EGIKARITZEKO URBANIZAZIO ZATI BATEAN EXEKUTATZEKO, UDALA ETA ORMAKEN ARTEAN 2011-07-27AN SINATUTAKO HITZARMENAREN ALDAKETA

BILDURIK

Alde batetik, KOLDO AGIRRE MUJICA jauna, Beasaingo Udalaren Alkate-Lehendakaria 72487359 F, NA duena. Ekintza honetarako ahalmena, 2015eko urtarrilaren 29an Udalbatza Osoak hartutako erabakiak ematen dio.

Beste batetik, MAURICIO ARREGUI AULESTIARTE jauna, 34.102.278-V NA duena, ORMAK, S.L.U.ren izenean eta bere ordezkari. Sozietate hau, Donostiako Fernando Mugica kateko, 11-2.ean helbideratua dago eta B-20218970 IFK zenbakia du. Administrazio gisa azaltzen da, Benito Corvo Román Notario jaunaren aurrean, 2006ko maiatzaren 2an egindako eskrituraren arabera. Eskriturak, 1092 protokolo zenbakia du eta Gipuzkoako Merkatal Erregistroan inskribatuta azaltzen da, hain zuzen ere, 1024 Tomoan, 108 Orrialdean, SS-916 orrian, 8. inskripzioa osatuz.

AURREKARIAK

I.- 2011ko otsailaren 17ko ORMAK, S.L. ek Zazpiburrieta, 4 arean garatu gabeko lursailen ordenazioa aldatzeko, eskaeraren arabera, Udalbatza Osoak 2011ko maiatzaren 13an, aipatutako enpresarekin sinatu beharreko hitzarmenaren edukia onartu zuen.

II.- Hitzarmena, ORMAK, S.L.U.rekin, 2011-07-27an sinatu zen helburu hauekin: ordenazioa aldatzea, igogailu publikoa instalatzea, J. M. Iturriotz kalearen desbideraketa eta dokumentu urbanistikoak idaztea, helburu horiek eta gastuak banatzeko.

III.- Ordenazioaren aldaketa honetan datza: P5 lursailaren eraikigarritasuna P3 eta P4 lursailengan eskualdatzen da. Horrek profilaren gehikuntza hau suposatzen du: P3 lursailan, profila + 1; P4 lursailan, profila + 2 eta Manufacturas Olaran pabiloiarekiko 2 metrotara lerrokadurak doitzea.

Ordenazio honek, P3 eta P4 garatzear dagoen ordenazioa, 3915 m²t finkatzea dakar eta horren ondorioz, 49 etxebizitza berri egin daitezke (3915/80=49 etxebizitza).

IV.- Ordenazioaren aldaketa egiteko Xehetasun Azterlana (2012-11-28), Konpentsazio Proiektuaren aldaketa (2012-12-26) eta Hirigintza Proiektuaren aldaketa (2012-12-26) onartu ziren.

Horrekin 2011-07-27an sinatutako Hitzarmenaren lehenengo, bigarren eta hirugarrenengo bi aldeen betebeharrak burututa geratu dira.

V.- Hirigintza Proiektu horrek, ordenazio berriak suposatzen dituen aldagatzen gain, J. M. Iturriotz eta Joan XXIII kaleen artean dagoen desnibela saihesteko igogailu publikoa instalatzea aurreikusten zuen eta hitzartu zen instalazioaren kostua, modu honetan finantzatzeko zela:

- 60%, Udala.
- 40%, ORMAK, S.L.U.

VI.- 2012-07-11n Udalbatza Osoak hartutako erabakiak, aipatutako hitzarmenaren aurka aurkeztutako errekurtsioa zela medio, indarrrik gabe utzi zuen hitzarmenean aurreikusten zena, J. M. Iturriotz kalearen desbideraketari buruz (ikus, 2013-02-13ko Alkatearen Ebazpena).

Horren ondorioz, 2011-07-27an sinatutako Hitzarmenean, bigarren laugarren eta bosgarrenengo klausuletan obra horiei egiten zaizkien aipamenak desagertu egin dira

VII.- Beasain Lantzenek, bere aldetik P6 eta P7 ondorioztatutako lursailetan babes ofizialeko etxebizitzak eraiki ditu eta 2011-07-27 Hitzarmenaren bosgarren klausulan aipatutako %10eko urbanizazio gastuak finantzatzeaz gain, esleipendunei etxebizitzak entregatu ahal izateko, beste urbanizazio obrak batzuk ere burutu zituen. Aipatutako lanen behin betiko likidazioa (2013ko apirila), 165.654,55 €koa (BEZik gabe), Beasain Lantzenek ordaindu zuen eta ORMAK, S.L.U.ri errekeritu zion, Osotasunean Tokiko Kapitala duen Merkatal Sozietatearen aldekoa den saldoa ordaintzea.

Horrekin guztiarekin, aipatutako Hitzarmenaren bigarren eta bosgarren klausulatik Beasain Lantzenentzat ondorioztatutako betebeharra ere burututa geratu da.

VIII.- Hitzarmena sinatu eta ondoren aldatu zenetik honantz, Zazpiturrieta, 4 arean Sustatzaileak egungo egoera ekonomikoa dela eta, ez du inolako hirigintza jarduketarik burutu ez garapenari ezta ere urbanizazioari dagokionean.

IX.- Hala ere, Udalak bidezkoa ikusten du eremuaren Hirigintza Proiektuan aurreikusitako igogailu publikoa instalatzea.

Horren ondorioz, bi aldeek elkarri aitortu diote kontratatzeke duten ahalmena eta horren arabera, dokumentu hau idatzi dute ondorengo

ESTIPULAZIOEKIN

Lehenik, 2011-07-27ko Hitzarmenaren laugarren klausula aldatzea, Igogailuaren obrak exekutatzeari buruz. Beasaingo Udala izango da igogailuaren obrak exekutatuko duena.

Horretarako, 2012-12-26an behin betiko onartutako Hirigintza Proiektuaren separata egin da, igogailuaren obrak nahiz ondorioztatutako P4 lursailean eraikigarria ez den (sestra gainean) finka pribatuan, igogailuaren sarbidea izateko behar den urbanizaziorako obrak lizitatzeko.

Hori guztia kontratatzeke egikaritze-aurrekontua, 375.646,77 €koa da.

Ondorioztatutako P4 lursailean ondorioztatutako P4 lursailean eraikigarria ez den (sestra gainean) finka pribatuan urbanizazioa, Udalaren kontura izango da.

Igogailuaren "separata", Udalak ordainduko du eta onartu eta gero, aipatutako obrak lizitatzeko balioko duen dokumentu teknikoa izango da.

Udalak ondorioztatutako P4 lursailean eraikigarria ez den (sestra gainean) finka pribatua (sestra gainena) zati batean urbanizatzeko baimena ORMAK, S.L.U.ri eskatuko dio, obraren zuinketa akta egin baino lehen eta lizitazio prozedurari hasiera eman baino lehen.

Bigarren, 2011-07-27ko Hitzarmenaren bosgarren klausula aldatzea, igogailuaren finantziazioari buruz. Igogailua egikaritzea eta instalatzearen kostua, behin betiko likidaziotik ondorioztatzen dena izango da (segurtasun eta osasun azterlana, kalitate-kontrola eta hondarren kudeaketa, barne) eta horrela finantzatuko da:

- Udalak: %60a.
- ORMAK, S.L.U.k: %40a.

Udalak ORMAK, S.L.U.ri igogailua egikaritzeak eta instalatzeak duen egiaztatutako kostuaren %40a fakturatuko dio.

ORMAK, S.L.U.k, planeamenduan aurreikusita dauden edozein promozioetarako lehen erabilerako baimena eskatzen duenean, izango du aukera aipatutako ordainketa egiteko (diruaren interesa aplikatuz), baina beti ere eskaera hori, P3 eta P4 lursailek igogailua ordaintzeko duten afekzio-karga, iraungi baino lehen egiten bada (zazpi urte 2013ko uztailaren 2013tik kontatzen hasita, baldin eta aldez aurretik Konpentsazio Proiektua behin betiko likidatzen ez bada. Kasu honetan zazpi urte baino lehen kantzelatuko lirateke (ikus uztailaren 4ko 1093/1997 Erret Dekretuaren 20. artikulua).

Bigarren. Aipatutako aldaketak jendaurrean jartzea, hogeitaz laneguneko epean iragarkia GAOean argitaratuz, ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen zazpigarren, 8 Xedapen Gehigarriak agindutakoaren arabera, adieraziz epe horretan alegazioarik ez bada aurkezten, behin betiko onartua geratuko dela.

Hirugarren. Alkate jaunari baimena ematea, 2011-07-27ko Hitzarmenaren aldaketa sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- AURREKONTUA. 2015. urterako aurrekontu orokorra onartzea.

Alkate jaunak (BILDU) proposamenaren berri eman du, hau da:

“Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkateak honek 2015 urterako Aurrekontu Orokorra osatu du. Hori dela eta, Kontuhartzailetzaren txostena eta Hazienda Batzordearen irizpenaren ondoren, Udalbatzaren onespenerako aurkezten da ondorengo akordio proposamena:

Lehenik.- 2015 urterako Aurrekontu Orokorren espedientea onartzea:

- Udalaren aurrekontu propioa:	15.945.253,00 €
- Beasain Lantzen, S.A.ren aurrekontua:	570.141,00 €
- Fundazioa: Udal Kirolaren Erakundeko aurrekontua:	667.177,60 €
- Beasaingo Loinatz Musika Eskolako aurrekontua:	614.072,17 €
- Beasaingo Udal Euskaltegiko aurrekontua:	429.710,20 €
- Aurrekontu Bateratua	17.087.385,37 €

- *Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua*

Bigarren.- 15 egun Jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du dagokiona ebazteko.”

Alkate jaunak (BILDU): “Gaietik datu batzuk aipatze arren komentatu, Beasaingo Udalaren zorpetze maila %3,5 ingurukoa dela. 2015erako aurreikusten diren inbertsio nagusienak ondorengoak dira:

- Joan XXIIIko igogailua.
- Baratza sozialak.
- Trenbide kaleko pantaila akustikoak.
- Hezkuntzako inbertsioak.
- Urtero egiten diren argiteri, asfaltatze, espaloi konponketa.
- Argiteriaren 3. fasea burutuko da.
- Ongizatean badaude kontusailak, benetako behar horiei laguntzeko.
- Euskarazko kontusailak kontsolidatzen saiatu gara.
- Lehengo urtean bezala, aurten ere elkarteei %5a igoko zaie.
- Auzoetan inbertsio esanguratsuak aurreikusten dira eta auzo bakoitzak bere kontusail propioa izango du.
- Urbialde plazako konponketa.
- Beste kontusail txiki batzuk.
- Enpresa sortzaileentzako kokapenean obra batzuk ere aurreikusten dira.
- Harrera bulegoa lekuz aldatu, beste itxura bat eman eta beste zerbitzu batzuk eskaintzeko, obrak aurreikusten dira.

Alderdiek egindako ekarpenetan, %90-95ean onartuak eta txertatuak izan dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak eman dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “el gobierno municipal, nos presenta el presupuesto del Ayuntamiento, con un aumento del 7,3% y un aumento del presupuesto consolidado del 10%. El gasto corriente ha aumentado un 6,9% y el nivel de endeudamiento del 3,46%. Todos estos aumentos son negativos para el municipio y sus ciudadanos y para el nuevo gobierno municipal, que saldrá el mes de mayo, sea el actual u otro nuevo.

En el tema de las inversiones hay un aumento del 9,5%. Son necesarias las inversiones en el municipio, pero siempre y cuando el endeudamiento lo permita porque es de primer orden bajarlo.

Con el tema del euskera, decir primero que no estoy en contra ni nunca lo he estado pero la inversión es muy grande. Dedicar parte de los recursos dedicados al euskera, a planes de empleo, educación y bienestar social.

En el tema de la vivienda, tomo como ejemplo, ERREKARTE, semiparalizado, con un gasto en propaganda para la participación sin pasarlo por su comisión correspondiente. No ha resultado como se pensaba porque habría sido mejor la participación con una ciudadanía activa, con una metodología para elaborar diagnósticos objetivos, estudiar nuevas alternativas pensando en el bien común y no en el partido.

Hay que seguir apoyando el aprendizaje de los ciudadanos para reducir el paro.

Se sigue manteniendo la partida de 10.000 € para el transporte a familiares de ETA. Los presos terroristas ya saben lo que tienen que hacer para su acercamiento, y así esta partida, este gasto extra, se podría destinar a beasaindarras necesitados.

Mi voto será en contra.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “este concejal es el último presupuesto que defiende como portavoz. Este concejal es hijo de un republicano, nació demócrata hace ya unos cuantos años y ha militado en un partido centenario. A veces decido hasta con quien me tomo los vinos, y con ello me siento hasta un poco libre, no libre del todo pero un poco si.

En este presupuesto nos vamos a abstener. Es un presupuesto plano, similar al del año pasado y no hay razones para cambiar de criterio. El partido socialista de Euskadi al que represento, no vamos a salvar al pueblo de Beasain. No somos tan osados, ni tenemos esa capacidad. Aportamos lo que podemos, poco a poco, con humildad y procuramos mejorar este presupuesto que se va a aprobar hoy con nuestra abstención, mejorarlo en la medida de lo posible para que los ciudadanos de la villa de Beasain, tengan una mejor calidad de vida y un mejor estar. Hemos acordado con el gobierno actúa cosas sencillas y hemos acordado una partida de 100.000 €, para las pantallas acústicas de la calle Trenbide, para concluir un trabajo inconcluso de la anterior legislatura. Se hizo una parte y si recuerdo bien, esa se hizo con el Plan-E del gobierno Zapatero. Vamos a intentar concluirlo. Así mismo, se ha negociado 30.000 € (gracias M^a Mar), para reforzar los pasos de cebra. Estamos en la tercera fase del cambio de luminarias en Beasain y por alguna razón, que aquí no viene al caso, esos pasos de cebra en las zonas oscuras, han quedado deficientes y hay una demanda importante de la ciudadanía que así lo reclama. Tenemos un acuerdo con el equipo de gobierno para incorporar 30.000 € y subsanar esa deficiencia. Como ya he dicho estamos en la tercera fase y ya se termina. Aquello que parecía imposible hace tres años, se ha conseguido. También en aquel momento con nuestro apoyo. También hemos acordado una partida de 250.000 €, para el colegio público Murumendi. De esos 250.000 €,

una parte es para terminar lo que se acordó el año pasado (cubrición de la entrada, urinarios nuevos y canalización de aguas residuales que generan cierto malestar y preocupaba la higiene de los niños). De esos 250.000 € hay una partida adicional que pactamos para este año, que es para reparar la pista superior, que lleva desde su fundación sin tocar y es una pista muy usada por los niños. A estas pequeñas cosas se reduce nuestra intervención en este presupuesto. Son partidas importantes a nuestro entender. Son cosas muy necesarias para los ciudadanos de Beasain y como no fue un acuerdo complicado, nuestra posición va a ser la de la abstención.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk aurkeztu diren aurrekontuei, hiru zuzenketa aurkeztu nahi ditugu:

“1.- Baratza Sozialak: Baratza Sozialak direla eta Kutzarekin egin behar den proiektua tarteko, lurzoru industrial erabili beharrean, egokiagoa den landa-lurzoru industrial erabili beharrean, egokiagoa den landa-lurzoru erabiltzeko eskaera egin nahi dugu. Kontuan izanda 2014ko aurrekontuetan dagoen “lurra erosteko” partida, ez dela erabili eta 2015ean ere aurreikusi dela, egokiagoa iruditzen zaigu lurra erosteko erabiltzea. Hori eskatzen dugu eta bertan proiektua gauzatzea.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Guk ulertzen ez duguna da honek aurrekontuarekin zer ikusia duen. Guk aurrekontuetara ekarritakoa ez da proiektua, baizik eta proiektu bat gauzatu eta exekutatzeko kontusaila. Beraz, aurrekontua izanda, ondorengo lana litzateke, nola eta non exekutatu proiektu horiek. Gure ustez proiektu horretarako lekua egokia da eta gainera gurea den lurzoru izanik eta momentu honetan ez dela lurzoru hori industriadako erabiltzea, uste dugu ez dela lur horren etorkizuna ez dela hipotekatzen eta leku irisgarria dela iruditzen zaigu. Zoritxarrez, hirigunean ez dugu horrelako lurzorurik baratzetarako, baina bide laua da eta bidegorria duena. Ditugun egoerak kontutan izanda, leku egokia da.

Hala ere esan, nik ez dudala ulertzen aurrekontuarekiko aldatu nahi dena.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Baratzak jartzea baina landa lurzoruan. Arrazoitzen da esanez, iruditzen zaigula zoru industrial erabiltzea ez dela egokia. Proposatzen dena da, dagoen partida horretarako erabiltzea. Zuzenketa alde horretatik eskatzen dugu. Horretarako landa-lur eremua erostea.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Baina partida berdin mantenduko litzateke. Zuek esaten duzue proiektua nola gauzatu aldatzea, baina hori erabakiko da gauzatzeko momentuan.

Bozkatu egingo dugu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nola baino non. Partida bat irekita utzi beharrean, proposatzen ari garena da izen-abizenak jartzea, hau da, diru hori erabiltzea lur zoru bat erosteko horretarako eta landa lurra izatea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8
Aurkako botoak: 9
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino txikiagoak izan direnez, ez da proposamena onartu.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), bigarren aldaketa:

“2.- Etxebizitzaren alokairua: Hutsik dauden etxebizitzak merkatura atera daitezten, Eusko Jaurlaritzak martxan dituen programak lagundu eta era honetan, BIZIGUNE edo ASAP programen bidez etxebizitza alokatzen duenari %10eko dirulaguntzak emanez. Partida 36.000 €koa.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Guk honi ere ezezko botoa emango diogu. Denok gaude hemen etxebizitza hutsak betetzeko eta alokairuaren alde. Dagoeneko ondasun higiezinaren gaineko zergan hobariak egiten zaizkie bi programa horiek bidez etxebizitzak alokatzen dituztenei, iaz horrela jaso zelako. Aurten esan, zenbait arazo izan direla, ezberdintasunak sortzen direlako alokairu libre modura alokatzen dutenen artean eta horrelako programen bidez alokatzen dutenen artean. Aurreko bi urtetan zenbait proposamen ekarri ziren etxeak betetzeko asmotan eta alokairua sustatzeko asmotan, beste zenbait herritan gainontzeko alderdiek ere onartu dituztenak, Tolosa adibidez. Uste dugu lanketa bat egin zela eta ez zen aurrera atera. Hobariak ematea ondo dago, baina bestelako neurriak ere hartu beharko lirateke, etxe hutsen inguruan. Horregatik gure ezezko botoa.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “apoyaremos esta enmienda. No tiene largo recorrido, pero todo lo que sea apoyar y fomentar el alquiler de viviendas esta bien.

Honestamente Sr. Alcalde, no creo que tenga nada que ver el tema de gravar las viviendas vacías con lo que se está diciendo aquí. Una cosa es una cosa y dos pueden ser media docena.

Estamos de acuerdo con este asunto.”

Alkate jaunak (BILDU): “Diru hori nondik hartuko beharko litzatekeen erabaki beharko litzateke onartu aurretik, bestela aurrekontuaren egonkortze-maila galduko litzateke.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bozkutzen dena da, zuzenketa onartzen den ala ez.”

Alkate jaunak (BILDU): “Baina zuzenketa hau sartzeko, nonbaitetik 36.000 € kendu behar dira.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Edozein kreditu aldaketa egiten bada, nola betetzen da oreka hori?. Landu egin beharko genuke.”

Kontuhartzaileak esan du, aurrekontua onartu eta gero exekutatzeari egiten diren kreditu-aldaketak gerakinetik finantzatu daitezkeela, ez ordea, hasierako aurrekontua denean. Nola nahi ere kreditu-aldaketak finantzatzeko, lehenengo, aurreko urteko aurrekontuaren likidazioa egin beharko litzateke zein gerakin geratu den jakiteko.

Alkate jaunak (BILDU): “Eguerdiko hamabietan mezu bat bidaltzen denean horrelako partidak sartu nahi direla, aurretik batzordeak egin da, bilerak egin da...gauza hauek gertatzen dira. Orain 36.000 € dira, baina hurrengo aldaketarako proposatzen duzuenak, 220.000 €. Nik ez dakit onartuko den ala ez. 36.000 € ajustatzea, gurea bezalako aurrekontuan ez luke arazo handirik sortuko, baina hurrena proposatzen duenak bai. Aurrekontu definitiboa lehengo astean jaso zenuten. Astelehenean izan genuen Ogasun batzordea eta orduan tratatzeko gaiak ziren. Aldaketak sartzeari proposatu ezkerorik, kontutan izan behar da, gastuak aurreikusten badira nondik kentzea ere aurreikusi egin behar dela. Zuek proposatu eta gainontzekoek lantzeko denbora gehiago izan behar genuen. Berririo diot, eguerdiko hamabietan bidaltuta, zaila da hori bideratu ahal izatea.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Abenduaren 30ean gure alderdiak zuen alderdiarekin egindako bileran, proposamenak aurkeztu genituen. Tartean ziren hemen proposatzen ditugunak eta baita kuantifikazioa ere eta onartu ez direnak dira. Guk proposatzen ditugu, gure ustetan hobekuntza bat delako eta aurrera ateratzeko nahia dugulako. Astelehenean Ogasun bilera egon ze, baina bilera horren ondoren elkartu ginen bi alderdiak. Guk ez genekien Ogasun bilera aurretik zer onartuko zen eta zer ez. Nik eskatuko nuke zuzenketa bozkatzeari eta bidea bilatuko zaio eta arazorik ez bada den kopuruarengatik, irtenbidea bilatuko diogu.”

Kontuhartzaileak esan du, hori ezinezkoa dela. Kreditu aldaketa egitearen konpromisoa onartu daitezkeela, baina ez kontusail hori aurreikustea nola finantzatzen den jakin gabe.

Aitor Larburu jaunak (BILDU) galdetu du nondik kendu behar den dirua eta kentze hori herritarren mesederako izango den.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “2014. aurrekontua ba daude 2 milioitik gora gastatu ez direnak. Hurrengo zuzenketa, gure ustez behintzat, larriagoa da gure

ikuspegitik gertatuko den zerbait delako eta hori aurreikusi egin nahi dugu, iruditzen zaigulako ez dela zuzen aurreikusi.”

Horren ondorioz, ondorengo proposamena bozkatu da: likidazioa onartu eta gero kontusail hori aurreikusteko kreditu aldaketa egiteko konpromisoa hartzea.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSE, PP, H1)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz onartu egin da aldeko botoen kopurua aurkakoa baino handiagoa delako.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), hirugarren aldaketa:

“3.- Sasieta: Proposamena, Sasietari egin beharreko ordainketa dela eta da. Zabortegiaren inpermeabilizatzea ezin bada eman edo obra bi hilabete atzeratzen bada (oraindik proiektua aurkeztu gabe dago eta inguruko sailaren oniritzia behar du) beasaindarrok ordaindu beharrekoa %53 gehiago izango da, %8a beharrean. Hori horrela, partida bat horretarako gordetzea edo aktibitatea eskatzen dugu. 220.000 €ko gehikuntza edo aurreikuspena eskatzen dugu.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Esto si es importante. Es mucho dinero y esto si puede desequilibrar un presupuesto. El llegar a esta situación no es responsabilidad de quien gobierna sino de quien permite gobernar. Esto no es nada nuevo, se preveía hace tres años. Se ha hablado, sea reincidido en el tema y por aquellas estrategias políticas que son legítimas, llegamos a estas situaciones. Hay quien piensa en el voto, pero nosotros pensamos en la solución a los ciudadanos. En estas situaciones se pretende dar una solución de urgencia a lo que lleva enquistado tres años. ¿Que esto va a ocurrir?. Probable. Todos sabemos lo que va a ocurrir y por qué se ha llegado a esta situación. Lo que se propone en la enmienda, ¿es una solución?. No. Es poner un parche a lo que puede ocurrir, pero no que no ha ocurrido. Cuando ocurra, se tomará la decisión que haya que tomar. Hay por ahí 700.000 € para esta historia y si hay que poner más, se pone más. Me parece un tema serio y de enjundia. Se podía haber hablado, comentado y negociado con suficiente tiempo para no llegar a un pleno, habiéndosenos comunicado esto a las 11,15 de la mañana.

Lo que si voy a recordar es que el partido socialista al que represento, es un partido serio y centenario y respetable. No es palmero ni va de palmero con nadie. Las cosas que no quiero que me hagan, no se deben de hacer. Cuando hay que hablar de cosas serias, como éstas, no se puede hablar en tres horas y ventilar 220.000 €, que puede acarrear serios problemas a los ciudadanos de Beasain. Es verdad que hay un problema y que hay que tomar medidas, pro

hay que ver cómo ocurren y cómo se solucionan. Votaremos en contra de la enmienda.”

Alkate jaunak (BILDU): “Guk ere aurkako bozkatuko dugu. Guk aurrekontuetan sartutako partida, Sasietako aurrekontuetan onartutakoa dela. Alfonsok esan duenarekin, ados. Lehen ere esan dut. Diru kopurua hau oso potoloa izanda, aldaketa sakonak egin beharko lirateke. Beraz, guk aurkako botoa emango dugu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Aipatu lehen aipatu dudan gauza bera. Abenduaren 30ean egin genuen bilera eta proposamen hau ere ba zegoen mahai gainean. Guretzat grabea da. Nik ulertzen den gobernuarentzat grabea ez izatea edo beste ikuspegi bat edukitzea eta ez aurreikusi nahi izatea.

Alfonso, gure alderdiak ere 100 urtetik gora ditu. Seriotasuna bakoitzak jartzen dio. Niri harritzen nauena da, zuretzat hain grabea izatea, horrelako beharra izatea eta Sasietan zure alderdiko ordezkariarekin hitzerdi bat ere ez egitea edo ez arduratzea grabadade honetaz eta zuk ez egitea proposamena. Ezin da beti zain egon, aurrera pausoak ere eman behar dira. Alderdi sozialistak ordezkari bat baino gehiago ditu Sasietan eta berdin pentsatuko du gai honetaz. Lanketa serio bat egiten bada, helburua edo ondorio berdina iritsiko zinateke eta guk ez genuke ibili behar proposamenak egiten.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Decía antes que no iba a entrar en el debate porque no es el momento ni el sitio. Es verdad que tenemos representantes en Sasieta, que ha habido reuniones y tenemos un partido centenario y muy respetado y con el que hemos hecho grandes acuerdos y seguramente lo seguiremos haciendo, pero esa no es la cuestión. La cuestión son las formas.”

EAJk aurkeztutako hirugarren zuzenketa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez, ez da onartu proposamena.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Eskerrak eman nahi ditut, aurrekontuarekiko gure proposamenak egiteko aukera eman zitzaigulako. Hainbat proposamen egin genituen eta horien artean, ondorengoak:

- Etxebizitzari dagokionez, etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntza programa martxan jartzea: 100.000 €koa (Eusko Jaurlaritzako RENOVE programan parte hartzen duten orok, Udalak jarri beharko

luke Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza berdina, Birgaitzea, batez ere, iresgarritasunean eta energia aurrezteko obretan).

- Enplegua sustatzeko, bi proposamen egin ditugu. Batetik lehengo urtetik datorren formazio ikastaroak osatzea, Goierri Fundazioarekin eta Lanbiderekin elkarlanean eta horrez gain gazteen kontrataziorako enpresei dirulaguntzak ematea, 16-30 urte bitarteko gazteek, langabetuak eta formazio gabe daudenak, praktketan hasi daitezten.
- Euskarako zabalkuntzarako gure proposamena egin genuen, Goierri Irratiari biztanleko € bat emanez.
- Udalbidek kudeatuta, Goierri ikasketak egiten ari diren ikasle nafarrei bidaia ordaintzeko, beste 10.000 €ko dirulaguntza.
- Dolare parkea estaltzeko proiektu eskaera.
- Joan Iturralde parkea inpermeabilizazioa bukatzeko edo behe-barruetan sortzen ari diren arazoei irtenbidea emateko partida ere sortu da.
- Herriko elkarteei ematen zaien kopurua %5a igotzea proposatu genuen, aurreko urteetan bezala eta onartu da.
- Aurrek legegintzalditik datozen hotsa kentzeko pantaila ezartzearen partida. Hotsa neurri gutxian kentzen denez, ezinbestekoa izango da, N-1ean Foru Aldundiak jarrita dituen pantailak jartzea.
- Olarango igogailua dela eta berriro ere proiektua berreskuratzea eta kontusaila jartzea ondo ikusten dugu.

Gure jarrera, abstentzioarena izango da.”

Alkate jaunak (BILDU): “Eskerrik asko egin dituzuen ekarpenegatik. Uste dugu aurrekontuak denon ekarpenak izan behar dituela eta Alfonsok esan duen bezala, guk ere poteak nahi dugunarekin hartuko ditugu eta aurrerantzean ere horrela egingo dugu, baina uste dugu elkarlan bat egon behar dela eta denon parte-hartze eta ekarpenak.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP)

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino handiagoak direnez onartu egin da, 2015. urterako aurrekontua.

4.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA. Beasaingo Udalaren eta organismo autonomoen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea.

Alkate jaunak ezagutzera eman du, Antolakuntza Batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- 2015. ekitaldi ekonomikorako aurrekontu proiektua dela eta, Beasaingo Udaleko eta bere organismo autonomoetako plantila eta Lanpostuen Zerrendak eratu dira 2015. urterako.

2.- Eratu diren dokumentuek antzekotasun handia dute, plaza eta lanpostuen izenei eta kopuruei dagokionez, 2014. ekitaldi ekonomikorako eratu zirenekin; baina hala ere, Osagarri espezifikoan igoera bat jartzen da. Hala ere Lanpostuen zerrendan, Giza Dinamizatzailerak eta Garbitzaile Zerbitziburua lanpostuak, 2014ko Udalbatzaren akordioa exekutatu, Gizarte Langile/Giza Dinamizatzailerak eta Zeregin Aniztuneko Langile izena hartuko dute.

Baita ere, Lanpostuen zerrendan, Osagarri espezifikoaren balorean gehikuntza bat jasotzen da (Zati Orokorrean eta Ardura bereziko zatian). Era berean Gazteri Teknikari lanpostuaren titularren Behin Behineko Osagarri Pertsonalaren zenbatekoa sartzen da Zati Orokorrean Osagarri espezifikoan.

OINARRI JURIDIKOAK

Aplikagarria den legedia ondorengo legetan dago bilduta:

- Apirilaren 12ko 7/2007 Legea, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen dena (34. eta 37.c artikulua)
- Erregimen Lokaleko Testu Bateratua (126,1 artikulua)
- Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretua (2f art.)
- Erregimen Lokaleko oinarrien Lege arautzailea (70,2 eta 22,2i artikulua).

Hau guztia ikusirik, eta ezaguturik, 2013ko urtarrilaren 2an, Pertsonal Teknikariak emandako txostena, Udal Antolakuntzako Batzordeak, Udaleko Osoko Batzarrera eramaten du ondorengo AKORDIO PROPOSAMENA:

Lehenik. Udalaren eta bere erakunde autonomoetako 2015. urterako pertsonal funtzionario eta laboralaren plantilari haserako onespina ematea, akordio honi atxikita doan eranskinean (espedienteen), azaltzen denez, bertan daude bakoitzaren izenak eta oinarrizko ezaugarriak, lanpostu horiek burutzeko eskatutako baldintzak, zein taldetakoak diren, atxikita dauden eskalak, hornitzeko erak, destinu osagarriaren mailak eta lanpostu bakoitzari izendatutako osagarri espezifikoak (tramu orokorra eta dedikazio bereziko tramua). Modu honetara, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 74. artikuluko eta Erregimen Lokaleko Oinarrien Lege arautzaileko 90.2 artikuluko arauak betetzat jotzen dira edukiari dagokionez, zerbitzuen beharren arabera, pertsonalaren ordenatzearen inguruan.

Bigarrena.- Publikoari erakustea hamabost egunez, Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik, erreklamazioak egiteko aukera egon dadin.

Hirugarrena.- Behin betiko onartzen denean, honen kopia bidaltzea Estatuko eta Komunitate Erkidegoko Administrazioari, eta argitaratzea Probintziako Aldizkari Ofizialean, bere ezagupenerako eta indarrean sartzeko.”

Alkate jaunak (BILDU): “Iazko plantilarekiko ez dago alde handirik. Bederatzi plaza hutsik daude eta aurten aurreikusten da bi udaltzaingo plaza betetzea. Gainontzean, ez dago aldaketa handirik.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5.- 2014 AURREKONTUAN GASTUAREN ARAUA HAUSTEAGATIK PLAN EKONOMIKO ETA FINANTZIEROA ORDEZKATZEN DUEN,
Kontuhartzailearen txostena azaltzea.

Ezagutzera eman da, Kontuhartzaileak egindako txostena, hau da:

“AURREKARIAK

1.-Udalbatzaren onespenerako aurkeztu den 2015eko Aurrekontu proiektuak, ZOR PUBLIKO eta DEFIZITAREN helburuak betetzen dituen arren, EZ DU BETETZEN GASTUAREN ARAUA, hain zuzen ere, gastu konputagarriaren bariazioa 2014 eta 2015 urteen artean, gehienez, %1,3an ezarrita egon arren, aurkeztutako aurrekontuak aurreko urtearekiko %9,22 bariazioa ondorioztatu du.

2.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21.1 artikulua ondorengo xedatzen du: Aurrekontu-egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua bete ezean, administrazio urratzaileak urtebeteko epean haiek bete ahal izatea bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du.

3.- Gipuzkoako Forua Aldundiak, 1/2013 Foru Arauak emandako eskumena erabiliz, “Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan jarraitu beharreko jarraibidea” onartu du. Araudi honen 3 erregelari xedatzen denez, gastuaren araua betetzen ez duten entitateek, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari, komunikazio bat aurkeztu diezaiokete Udalbatzari, Kontuhartzaileak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- 2014ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenen, diruzaintza eta aurrezki garbia positiboak izatea.

- 2015erako defizit eta zor helburuak betetzea.

Aipatutako xedapenetan adierazitakoa betez, igortzen da ondorengo

TXOSTENA

1.- Eskura dugun informazio kontablearen arabera (1etik 7ra arteko sarrera bateratuen behin-betiko aurreik.: 15.957.969,68 € / Onartutako eskubideak: 16.120.314,37 €, 2014ko aurrekontu-likidazioaren DIRUZAINZAKO GERAKINA ETA AURREZKI GARBIA POSITIBOAK IZANGO DIRELA aurreikusi liteke. (Bateratutako sarrera arrunten aurreikuspena: 15.399.647,83 € / Bateratutako gastu arrunten aurreikuspena: 12.327.086,85 €) / Maileguen amortizazioa: 525.650,29 €).

2.- Udalbatzaren onespenerako aurkezten den 2015eko Aurrekontu proiektuak, defizit eta zor publikoaren helburuak BETETZEN DITU.

3.- 2015eko Aurrekontu bateratutik ondorioztatzen den aurrezki garbia, finantza iraunkortasunaren adierazle bat, dena, 2.538.342,07 eurokoa da.

Sarrera arruntak:	15.971.744,37
Gastu arruntak:	<u>-12.906.402,30</u>
	3.065.342,07
Zorraren amortizaz. :	<u>-527.000,00</u>
	2.538.342,07

Beraz, txosten honek ondorengoa adierazten du:

- Plan ekonomiko-finantzarioaren ordezt, Udalbatzari Komunikazioa aurkezteko baldintzak betetzen direla.

- 2.015eko Aurrekontu proiektuan GASTU ARAUAREN HELBURUA URRATUTA gertatu arren, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da Beasaingo Udalaren EGOERA FINANTZARIOA IRAUNKORRA dela eta aipatutako urraketa ondoz ez dela konprometitu gertatzen.”

6.- UDALBATZARI KOMUNIKAZIOA. Egindako eragozpenaren aurka emandako Ebazpenari buruzko jakinarazpena.

Ezagutzera eman da, Kontuhartzaileak egindako txostena, hau da:

“Txosten hau, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratzailearen 218 artikulua xedatutakoaren agindupean igortzen da, honek ezartzen baitu Udalbatzari helaraztearen beharra Toki Erakundearen Lehendakariak, egindako eragozpenen aurka emandako ebazpenen berri ematearen betebeharra.

Aipatutako xedapenak dioena betez ondorengoa adierazten da:

1.-Udal Kontuhartzaileak egindako eragozpenaren aurka (2014-12-15eko txostena) 2014ean emandako Ebazpena ondorengoa izan dela:

B14/01319 ebazpena. Ordainsariak eta diru kopuruak 2014 ekitaldi ekonomikoa gaiari buruzkoa.

2.- Jakinarazpen horrek puntu independente bat osatu behar duela dagokion Osoko bilkurako gai-zerrendan.

3.- Korporazioaren Lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango duela Osoko Bilkuran.”

PREMIAZKO PUNTUA

Osoko Bilkuraren hasieran aho batez onartu denez premiazko puntua modura tratatzea, 2015eko urtarrilaren 26an Gizarte-ongizate batzordeak egindako proposamena, honen berri eman da:

“GAIA: Mugarik Gabeko Medikuak aurkeztutako eskaera: Beasaingo Udalak Ebola larrialdirako onartutako 10.000€, Larrialdietarako Fondora zuzentzea.

Beasaingo Udalak, 2014ko azaroaren 20an egindako bileran, Ebolari buruz Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa onartu zuen eta horren arabera, beste batzuren artean ondorengoa erabaki zen, alegia, Mugarik Gabeko Medikuak erakundeari 10.000 euro ematea Ebolaren epidemiak Afrikan eragin duen giza larrialdiari aurre egiteko.

2014ko azaroaren 27ko data duen idatzian Mugarik Gabeko Medikuak erakundeari Ebolaren epidemiari aurre egiteko Beasaingo Udalbatzak hartutako erabakiaren komunikazioa egin zen.

2014ko abenduaren 15eko data duen idatzian Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak onartutako 10.000€ko laguntza erakundearen Larrialdi Fondora destinatzea eskatzen du, Ebolaren aurka destinatutako zati garrantzitsu bat Fondo horretatik hartutakoa izan delako.

Hori dela eta Gizarte Ongizate Batzordeak 2015-01-26an egindako bileran onartu du Beasaingo Udalaren 10.000€ko laguntza Mugarik Gabeko Medikuak duen Larrialdi Fondora zuzentzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

7.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2014ko abenduaren 15etik 2015eko urtarrilaren 17a bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2014ko abenduaren 15etik 2015eko urtarrilaren 17a bitarte emandako Ebazpenak

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

OMENALDIA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Hau da dakarkigun proposamena. Ikastolak 50. urte urrena egin duen honetan, Isabel Olano lehenengo andereñoari Udalak omenaldia egitea.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Gure aldetik, nik uste dut ados egongo garela. Lantzeko inolako arazorik ez eta egokia iruditzen zaigu, Ikastola eta euskal hezkuntzaren inguruan lanean aritu direnei errekonozimendua egitea. Landuko dugu, dagokion batzordetik bideratuz.”

BIZILAGUNAREN KEXA

Ezkiaga auzoko bizilagun batek Joan XXIIIan 2-4 etxearen inguruan dagoen terrenoaren egoera salatu du, adieraziz etxetik ateratakoan ez dagoela espaloirik eta zuzenean lokatza zapaltzera behartuta daudela.

Alkate jaunak esan du aztertuko dela, lehendik zer eginda dagoen eta arazoa nola bideratu daiteken.

BEASAIN HERRIAREN 400. URTE URRENA

Alkatea jaunak (BILDU): "Datorren astean Beasainek 400. urte urrena izango du eta San Martin eguna ere izango dela eta egingo diren ekintzetara guztioi gonbidatzen zaituztet eta baita ere herritarrei.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta hogeita bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.